

1. FASEA: SENTSIBILIZAZIOA

AURKEZPENA/JUSTIFIKAZIOA

Zentroko hezkuntza-komunitatekide bakoitzak bere era propioan bizi ohi du egunero bertan gertatzen dena. Hau hamaika faktoreren isla da: bizi-esperientziak, inguruan edukitako balioak eta haien barneratze-maila, barne-sinesmenak, garaturiko bizitzarako gaitasun eta kompetentziak... Aniztasun zabal honek eragin zuzena du elkarbizitza intrapertsonal zein pertsonen artekoan.

Hori dela eta, ezinbestekoa da espazio fisiko eta denbora ematea gure arteko ELKARBIZITZAREN inguruko hausnarketari: zer da elkarbizitza?, zer iritzi dugu gure ikastetxeko elkarbizitzari buruz?, ondo al gaude?, ondo egoteak denentzat antzeko zerbaite esan nahi ote du?, hobeto egoteko zer behar dugu?...

SENTSIBILIZAZIO fase honetan 3 jarduera proposatzen dira:

- 1- MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN
- 2- ELKARBIZITZA ZENTRUAN: GIZA-ESKUBIDEEI BEGIRA
- 3- GEURE ELKARBIZITZA-DEFINIZIOA SORTZEN

Jarduerak sekuentzia hau jarraituko dute:

1 JARDUERA: Norberaren sinesmenetatik abiatuz, berdinen taldearekin konpartitu lehenik eta hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuekin azkenik.

2 JARDUERA: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak hainbat gako aurkezten ditu eguneroko bizitzan harremanen kalitatea eta pertsonen arteko elkarbizitza esparru zein egitura... maila guztietan (makro eta mikro) bermatzeko. Jarduera honen bitartez eskubide hauek zentroaren bizitzara hurbiltzeko asmoa dugu eta errealitatean ematen diren edo ez aztertu, egoerak, uneak eta estrukturak behatuz.

3 JARDUERA: Bakarkako zein taldekako hausnarketak egin ondoren taldeak elkarbizitza-definizioa sortuko du eta komunitate osoak adostu, berea dela sentituz.

Aipatutako jarduez gain, fase honen hasieran UEPren AURKEZPENA eta bukaeran 1. FASEAREN AZKEN EBALUAKETA aurkituko dituzu.

HELBURUAK

1. Geure sinesmenak konpartitu.
2. Elkarbizitza ona sustatzen duten egoerak identifikatu.
3. Elkarbizitza ona oztopatzen duten egoerak identifikatu.
4. Denen artean elkarbizitza-definizioa sortu.
5. Definizioa zentro osoaren artean adostu.

EDUKIAK

1. ELKARBIZITZA POSITIBOAREN KONTZEPTUA
2. ELKARBIZITZAREN KALITATEA BALDINTZATZEN DUTEN ASPEKTUAK
3. GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA ETA EGUNEROKO BIZITZAN DITUZTEN INPLIKAZIOAK.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

ORIENTAZIO METODOLOGIKOAK

- Jarduera guztiek hasteko hausnarketa pertsonala bultzatuko dute eta gero emaitzak kideekin konpartitu.
- Sektore bakoitzak bere alde egingo du bateratze lana, azkenik ekarpenak beste estamentuekin konpartituz.
- Fase honetan erreminta hauek aurkezten dira: 0. Triptikoa, 1. err irakasleak, 1. err ikasleak, 1. err familiak, 2. err irakasleak, 2. err ikasleak, 2. err familiak eta 3. err hiru kolektiboentzat. AZPrekin lan egiteko egokiena aukeratuko da edo beraien behar eta helburuei hobekien hurbiltzen dena egokitu. Erreminta bakoitzak dagokion "a" tresna dauka talde txikian lantzeko eta "b" talde handirako.
Ikasleen erremintak egokitzeko beharra dute lehen hezkuntza eta haur hezkuntzako umeekin aritzeko. Iradokizun bezala GGEE lantzeko "rayuela" web gunean ideiak topa daitezke) eta "BAKEA IRUDIKATUZ" materiala (EUSK eta GAZT) Donostiako Udalak argitaratua (ikus web interesgarriak atala).
- Ikuspegi zorrotzagoa lortu nahi izanez gero, interesgarria da emakumeen eta gizonen ekarpenak bereizita biltzea. Honek emango ligukeen informazioak batzuen eta besteen sinesmenak eta pertzepzioak berdinak direlako, ezberdinak direlako oso baliagarri suertatuko lirakeke planifikaziorako eta aukera-berdintasuna eta tratuzkoa bermatzen duten ikasketa-egoerak programatzeko. Horrez gain, baita justizia eta ekitatea oinarri duten harreman demokratikoak eraikitzen lagundu ere. Horrela egitea erabakiz gero, kontuan eduki taldeak eratzerakoan, emaitzak biltzerakoan, eta abar. Kolektibo bakoitza bere aldetik ibiliko baita.
- Jarduera bukatzerakoan ebaluaketa erraz bat proposatzen da. Dinamizatzaillearen ardura izango da emaitzak dagokion AKTAN biltzea eta horrela hurrengo saioan taldeari aurkezteko lana erraztu, proiektuaren memoriarako baliagarri delarik ere bai.
- SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK atalean saioa aurrera eraman baino lehen ezagutzea gomendagarri diren informazioak agertuko dira. Horrez gain, norbaitek interesa erakutsiz gero errefortzu gisa erabili daitezke. Gainera bestelako proposamen batzuk ageri dira (abestiak, jolas-dinamikak...) taldean giroa piztu eta jarduerari sarrera bezala erabili daitezkeenak.
- SAKONTZEKO MATERIALAK atalean landutako gaien inguruan sakontzeko materialak agertuko dira.

FASEAREN GARAPENA

0 JARDUERA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Tresnak
GAKOAK:				
<ul style="list-style-type: none"> → Triptikoaren fotokopiak kolorezko folioetan egitea materiala hobeto identifikatzeko baliagarria izan daiteke. → Aurkezpenerako kainoi eta ordenagailua prest eduki behar. 				
GIDAREN AURKEZPENA	GUZTIRA: 10 min TALDE OSOA	Partaide guztiei "UEP: egunez egun hobetuz" triptikoa banatu. Hauxe da UEP eratzeko Gidaren laburpena. ○○○○○○ Dinamizatzailleak POWER POINT artxioboaren laguntzaz prozesuaren ildo nagusiak aurkeztuko ditu.	UEP GIDA (Power Point formatoan)	"UEP: egunez egun hobetuz" triptikoa

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

1 JARDU ERA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Tresnak
GAKOAK: → FOTOKOPIAK: 1 ERREMINTA ren kopia bana, 1a ERREMINTA ren kopia bat bost laguneko talde bakoitzarentzat (gardenkian), 1b ERREMINTA ren kopia bat, Jarduera- AKTA EREDUA ren kopia bat. → Gardenki-proiektorea. → Errotuladoreak, gardenkiak, postitak				
MARKO KONZEPtualak KONPARTITZEN	Guztira: 95 min.	Pertsona bakoitzari <u>1 erreminta</u> banatu: Esaldi guztiak lasai irakurri eta zure adostasun-maila adierazi 1etik (guztiz kontra) 4ra (guztiz ados). Jarduera burutu. Intereseko aspekturen bat falta bada bukaeran gaineratu. Interes gehien duten hiruak aukeratu.		1 erreminta "Marko kontzeptualak konpartitzen"
	BAKARKAKO LANA: 10 min.	○○○○○○		
	TALDEKO LANA: 45 min.	Bost laguneko taldeak sortu. Talde bakoitzari <u>1a erreminta</u> eman, bertan kideen ekarpenak islatzeko.	○○○○○○	
	TALDE OSOAREN LANA: 35 min.	Bateratze lana talde handian. Pertsona batek <u>1b erreminta</u> ekarpenen eta aipatutakoen berri hartuko du, baita talde osoak harturiko akordioak ere.	○○○○○○	
BAKARKAKO LANA: 5 min.	JARDUERAREN EBALUAKETA: Postita PARTAIDE BAKOITZARI eman eta jarduera ondoko ITEM hauen arabera balora dezan eskatu: → 1etik 10era → Adjektibo bat <i>Oharra: emakume eta gizonen emaitzak bereizita aztertu ahal izateko, bereizita bildu postitak</i> (Dinamizatzaileak ebaluaketaren emaitzak JARDUERA-AKTA EREDUAN islatuko ditu)	Post-itak JARDUERA-AKTA EREDUA	1a erreminta "TALDE TXIKIEN LABURPENA Marko kontzeptualak konpartitzen" 1b erreminta "TALDE OSOAREN LABURPENA Marko kontzeptualak konpartitzen"	

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeke Gida (UEP)

2 JARDUE RA	Iraupena	Jarraibideak	Balibideak	Tresnak
GAKOAK: → FOTOKOPIAK: 2 ERREMINTA ren kopia bana, 2a ERREMINTA ren kopia bat bost laguneko talde bakoitzarentzat (gardenkian), 2b ERREMINTA ren kopia bat, Jarduera- AKTA EREDUA ren kopia bat. → Gardenki-proiektorea. → Errotuladoreak, gardenkiak, postitak				
BIZKIDETZA IKASTETXEAN: GIZA-ESKUBIDEEI BEGIRA	Guztira: 95 min. 5 min.	Dinamizatzaileak taldeari itzuliko dio <u>1 jardueraren aktan</u> islaturikoa. Pertsona bakoitzari <u>2 erreminta</u> banatu:		
	BAKARKAKO LANA: 20 min.	-Itemak arretaz irakurri. - X batekin adierazi, erdiko zutabeen, zuk uste duzuna. -Deskribatu item bakoitzak adierazten duen egoera edo ekintzaren bat. ○○○○○○		2 erreminta "Giza- eskubideak eta elkarbizitza"
	TALDE-LANA: 30min.	Bost laguneko taldeak sortu. Talde bakoitzari <u>2a erreminta</u> eman, bertan kideen ekarpenak islatzeko. ○○○○○○		2a erreminta "TALDE TXIKIEN LABURPENA Giza- eskubideak eta elkarbizitza"
	TALDE OSOKO LANA: 35 min.	Bateratze-lana talde handian. Pertsona batek <u>2b erremintan</u> ekarpenen eta aipatutakoen berri hartuko du, baita talde osoak harturiko akordioak ere. ○○○○○○		2b erreminta "TALDE OSOAREN LABURPENA Giza- eskubideak eta elkarbizitza"
BAKARKAKO LANA: 5 min.	JARDUERAREN EBALUAKETA: Postita PARTAIDE BAKOITZARI eman eta jarduera ondoko ITEM hauen arabera balora dezan eskatu: → Zer sentitu duzu? → Hobetu beharrekoak <i>Oharra: emakume eta gizonen emaitzak bereizita aztertu ahal izateko, bereizita bildu posit-ak</i> (Dinamizatzaileak ebaluaketaren emaitzak JARDUERA-AKTA EREDUAN islatuko ditu)	Post-itak JARDUERA-AKTA EREDUA		

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

3 JARDU ERA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Tresnak
GAKOAK: → FOTOKOPIAK: 3 ERREMINTA ren kopia bana, 3a ERREMINTA ren kopia bat bost laguneko talde bakoitzarentzat (gardenkian), 3b ERREMINTA ren kopia bat, Jarduera- AKTA EREDUA ren kopia bat. → Gardenki-proiektorea. → Errotuladoreak, gardenkiak, postitak				
GEURE ELKARBIZITZA DEFINIZIOA SORTZEN	Guztira: 90 min. 5 min.	Dinamizatzaileak taldeari itzuliko dio <u>2 jardueraren aktan</u> islaturikoa		
	BAKARKAKO LANA: 10 min.	Pertsona bakoitzari <u>3 erreminta</u> banatu: - Galderak arretaz irakurri. -Erantzuna eman galderei (gehiegi pentsatu gabe). ○○○○○○		3 erreminta "Geure elkarbizitza definizioa sortzen"
	TALDEKO LANA: 40min.	Bost laguneko taldeak sortu. Talde bakoitzari <u>3a erreminta</u> eman, bertan kideen ekarpenak islatzeko. ○○○○○○		3a erreminta "TALDE TXIKIEN LABURPENA Geure elkarbizitza definizioa sortzen"
	TALDE OSOKO LANA: 35 min.	Bateratze-lana talde handian. Pertsona batek <u>3b erremintan</u> ekarpenen eta aipatutakoen berri hartuko du, baita talde osoak harturiko akordioak ere. ○○○○○○		3b erreminta "TALDE OSOAREN LABURPENA Geure elkarbizitza definizioa sortzen"
	BAKARKAKO LANA: 5 min.	JARDUERAREN EBALUAKETA: Postita PARTAIDE BAKOITZARI eman eta jarduera item hauen arabera balora dezan eskatu: → Aditz batekin → Jarduerarekin duzun asebetetasun-maila. <i>Oharra: emakume eta gizonen emaitzak bereizita aztertu ahal izateko, bereizita bildu posit-ak</i> (Dinamizatzaileak ebaluaketaren emaitzak JARDUERA-AKTA EREDUAN islatuko ditu)	Post-itak JARDUERA-AKTA EREDUA	

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

FASEaren azken ebaluaketa	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Tresnak
GAKOAK: → Garrantzitsua da partaideek fasea bukatu bezain azkar ebaluaketa betetzea, benetan sentitutako pertzeptzioak eta sentsazioak isla ditzan. → FOTOKOPIAK: "1 FASEAREN AZKEN EBALUAKETA" galdetegiaren kopia bana.				
1 FASEAREN AZKEN EBALUAKETA TXOSTENA SENTSIBILIZAZIOA	Guztira: 15 min.	Pertsona bakoitzari banatu: " 1 FASEAREN AZKEN EBALUAKETA GALDETEGIA "		<u>GALDETEGIA</u> "1 FASEAREN AZKEN EBALUAKETA"

SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK
<ul style="list-style-type: none"> → OINARRIZKO MATERIALA 0: ¿Por qué un plan de convivencia? - PEDRO URUÑUELA (2 bideodigital on-line eta pdf) http://www.elkarrekin.com/blog/index.php?blog=14&cat=19 → OINARRIZKO MATERIALA 1: ELKARBIZITZA DEFINIZIOA, ROSARIO ORTEGA. → OINARRIZKO MATERIALA 2: "Una escuela de calidad para todas y para todos" FORORA "Educación en valores: convivencia, paz, coeducación... educación ciudadana" ESPARRUAN EUSKADITIK eginiko ekarpena. <p>Jarduerak egiten hasi baino lehen interesgarria izan daiteke taldean giro aproposa sortzea eta horretarako hainbat ekintza proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> → OINARRIZKO MATERIALA 3: ABESTIA "ENTZUN" (AFRIKA) → OINARRIZKO MATERIALA 4: ABESTIA "IZAN ZEU" (GONTZAL MENDIBIL) → OINARRIZKO MATERIALA 5: CANCIÓN "AZALA ILUNAGOA" (AFRIKA) → OINARRIZKO MATERIALA 6: ELKARBIZITZA ONURAGARRIRAKO INGURU LAGUNGARRIA (GURUTZE ZIPITRIA)

SAKONTZEKO MATERIALAK

- SAKONTZEKO MATERIALA 0: "El currículum del a no violencia" M. JOSÉ DÍAZ AGUADO, 2006
http://w3.cnice.mec.es/recursos2/convivencia_escolar/3_elcurri.htm
- SAKONTZEKO MATERIALA 1: "Condiciones básicas para mejorar el clima escolar" M. JOSÉ DÍAZ AGUADO. <http://mariajosediaz-aguado.tk>; materiales descargables; documentos de texto, audio y vídeo; artículos; convivencia escolar.
- SAKONTZEKO MATERIALA 2: "La convivencia: un modelo de prevención de la violencia" ROSARIO ORTEGA, 2005.
<http://www.convivencia.mec.es/sgc/con2005/ORTEGA.pdf>
- SAKONTZEKO MATERIALA 3: "Los problemas de la convivencia escolar: un enfoque práctico" Federación enseñanza CCOO, 2001
<http://www.usmr.coo.es/frem/convivencia/convive/libro.pdf>
- SAKONTZEKO MATERIALA 4: "Informe final de la situación actual de la educación para la igualdad en España"
http://www.mtas.es/mujer/mujeres/estud_inves/red2red.pdf
- SAKONTZEKO MATERIALA 5: "Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala"
<http://www.unhcr.ch/udhr/lang/bsq.htm>
- SAKONTZEKO MATERIALA 6: "Haurren Eskubideen Aldarrikapena"
http://eu.wikipedia.org/wiki/Haurren_Eskubideen_Aldarrikapena

BIBLIOGRAFIA, WEB ESTEKAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK

LIBURUAK:

- EMAKUNDE, HEZKIDETZA EAEN. BILAKAERA ETA ETORKIZUNERAKO ESTRATEGIAK

WEB ESTEKAK:

- IRAILAK 21 NAZIOARTEKO BAKEAREN ETA ELKARBIZITZAREN EGUNA (Ej Hezkuntza Saila)
www.elkarrekin.org/web/bizikide21
- ELKARBIZITZA BLOGA (Ej Hezkuntza Saila))
www.elkarbizitza-convivencia.blogspot.com
- IRAKASLEEN ATARIA (Ej Hezkuntza Saila)) LIBURUTEGIA sailera joan
>ESKOLA INKLUSIBORANTZ>ELKARBIZITZA SUSTATU INDARKERIA EKIDITEKO
<http://www.elkarrekin.org/jsp/publico/index.jsp>
- ZURE BERDINTASUNAREN ALDE (PORTUGALETE)
http://www.portuigualdad.info/index1_html-eu?set_language=eu&cl=eu
- CUENTOS DERECHOS DE LA INFANCIA
<http://www.me.gov.ar/derechos/>
- ESTADO MUNDIAL INFANCIA 2006 UNICEF:
<http://www.unicef.org/spanish/sowc06/intro.html>
- BIBLIOTECAS POR LA CONVIVENCIA 2005
<http://gestiona.madrid.org/bpcm/servlet/Servidor?opcion=SelecRecurso&lista=Todos&anio=2005>
- CUENTOS DIVERSIDAD SEXUAL
<http://cogam.avanzis.com/Webportal/DesktopDefault.aspx?Alias=Rainbow&TabID=102&Lang=es&ItemID=1413&id=154&smid=154>
- ARARTEKO. DEFENSOR DEL PUEBLO PAÍS VASCO
<http://www.ararteko.net/webs/bienvenida-cast.htm>
- WEB CONVIVENCIA MEC
http://convivencia.mec.es/plan_conv/
- DERECHOS DE LA INFANCIACON ACTIVIDADES: VÍDEO, CUENTO, JUEGO... Y MÁS
<http://www.rayuela.org/>
- HAUREN ESKUBIDEAK lantzeko "BAKEA IRUDIKATUZ" materiala (EUSK eta GAZT eta 6-12 urte bitarteko ikasleentzat prestatua) Donostiako Udala.
http://www.donostia.org/imaginemoslapaz/menu_euskera.html

FILMEAK:

- **Antonia´s line.** Bizitza, askatasuna, familia eta komunitate osoa da kantagai; aniztasuna positiboa eta naturala da. Filme-atzerritar onenari emandako Oskar saria irabazi zuen 1996. urtean.
- **Tomate berde frijituak.** (EUSKARAZ) Indarkeri mota oro salatzen dituen filmea: sexista, arrazista, homofoboa... Bestalde, samurtasun handikoa ere bada, pertsonaien arteko adiskidetasuna eta leialtasuna indartsua bilakatzen baita. Fannie Flag idazlearen best-seller batean oinarritua, Pulitzer saria irabazteko hautagaia izan zen eta Oskar sarietarako bi izendapen jaso zituen.
- **Whale rider.** Zeelanda Berrian kokatzen da eta maoritarren ohiturak kontatzen ditu. Kostaldeko herri batean tradizioak izendatzen duen hurrengo buruzagia hiltzerakoan krisialdi gogorra sortuko da. Hildakoaren bikiak, Pai-k, 12 urte dituela garbi du bera izan daitekeela taldearen lider berria baina horretarako hainbat pasadizo bizi behar.
- **San Woo y su abuela.** 7 urteko mutil baten historia. Sang Woo hiri handi batean sortu eta bizi da. Bere amona mutua da eta bizitza osoan herrixka batean pasa du. Sang Wook amonarekin pasa beharko du denboraldi bat eta gatazka latzak sortuko dira bere bizitzan hiriko gauzak ez dituelako, amonarekin....